

Gaurkoa »

Basterretxearen artelana



Jean Mixel Bedaxagar, Nestor Basterretxea eta Andoni Iturrioz eta Arritxu Santamaria, Bedaxagarren Urdiñarbeko lantegian. JUAN PABLO ZABALA

Oinazearen lekuko

Senpereko jauregitik hurbil, Basterretxearen oroitarria estreinatuko dute gaur, Lapurdi 1609-2009 elkartearen eta Udalaren ekimenez; De Lancrek gidatu sorgin ehizak ireki zaurien lekukotasuna da obra

Nora Arbelbide

Erortzen ari diren Senpereko jauregiko harriek eskapatzera uzten duten memoriak gaurtik aitzina ihesa zailago ukanen du. Hortik zenbait metrotara Nestor Basterretxearen (Bermeo, Bizkaia, 1924) oroitarria ukanan du zutik, zaindari. «De Lancrek egin krimenen lekukotasun bat da», eskultorearen hitzetan. Manera bat garai hartan gertatuari buruz eman mintzaldi, bertso saio edo beste hainbat ekitalditan Lapurdi 1609-2009 elkarteak hedatu duen hitza, jakintza gauzatzeko. Jauregi abandonatuaren hauskortasunari burdinazko oihartzun sendoa. Turistak erakartzearren, *Sorginen jauregia* bihurtu dutenaren parean dramaren heinaz ohartzaztekoa ematen duena.

1609. hartan jauregian eta inguruetan iragan gertakizun lazgarriei hiru metroko altuera eman die artistak, eta bi tonako pisua. Gorriz eta beltzez tindarazi ditu, «inpaktu dramatiko» indartzeko. Bi kolore eta bi alde, dramaren bi aurpegi azaltzeko. Batean, garai hartan pertsonen erreteko erabili zutoina gogoratzen duen forma, eta, bestean, herriaren oinazea, arantzen bidez irudikatua.

Denbora gutxi behar izan du artistak obraren asmatzeko; «erraza izan da, gaiak anitz inspiratu nauelako». Gaiaz bazekien jada Lapurdi 1609-2009 elkarteak etorri zitzaizkiolarik proiektua proposatzera. Baietza eman zien segidan, eta, gainera, urririk. Ordinarazi balu, Basterretxe-

ak badaki: «Proiektua ez zen eginen». Eta bizkitartean biziki argi du historia horren gogoratzea biziki garrantzitsua dela: «Zerbait egin beharra da ez ahanzteko». Inportanta, jakinez gainera, iduriz, oroitarri bakarrenetako bat dela Europa osoan, ez bada bakarra, orduan gertatu gehiegikeria horiek oroitarzaten dituenak.

Horiek horrela, Basterretxeak urririk eman badie gaiaz egin egurrezko maketa, bi baldintza finkatu dizkie. Lehenik, eskultura gustukoa duen leku batean ematea. Eta, bigarrenik, obra Jean Mixel Bedaxagarrek (Urdiñarbe, Zuberoa, 1953) soldatzea. Aspaldiko adiskidearekin jadanik aritua da lanean. Xiru jaialdiaren 20 urteen kariatara iaz, Ameriketara joan artzainen gaia irudikatuko *Euskamerika* oroitarria egin zuten elkarrekin. Gotaine-Irabarneko parkean jarria dute monumentua.

Senperekoa bigarren elkarlana dute. Burdina bera Usurbilgo Laser Ken enpresak pikatu du, eta ondotik hiru zatiak Urdiñarbera joan, Bedaxagarren lantegira. Han soldatu eta tindatu ditu. Bedaxagar, kantari eta txirularia izateaz gain, lanbidez arotza baita. Normalean, behi eta ardi hazkuntzaren laneko tresnak edo sarrailak egiten ditu bereziki. Artelanak ez ditu hain usu, baina baditu elkarrik, «sentimenduz» egiten du lan.

Aldi honetan, adibidez, emazte haien «sufrimendua» barnatzeko denbora eman dio lanak; «sua-rekin zer jasan duten» oharatu da. Hori gogoan zuela aritu da. Baina,aldi berean, plazerez, «Nestorren jenioaz» aspaldian ohariturik. Oroitarri honetan ere, «izari guztiak ezkontzen ditu» Bedaxagarren gustuko. Obrak «homogeneotasun handia badu. Hori, artista batek baizik ezin du egin. Iduri du deusik ez dela, baina ez da hala. Bertso bat bezala, lau lerrotan hitz xuxenak harrrapatu behar». Obrak orain dela zenbait egun utzia du Zuberoako lantegia eta jadanik Senperen jarria dute, Basterretxeak hautatu gunean. Baina gaur goiza arte estalia atxiki dute.

Kantu eta bertso bidez estreinatua

Gaur goizeko ekitaldiaren kariatara dute agerian utziko. Horretarako, hainbat etortzeokoak dira. Basterretxea eta Bedaxagar artistak, hasteko. Bedaxagarrek, gainera, kantu bat ematen du Bordaxar Joanek lagundurik. Auxtin Zamoraren *Jaun Miserere* olerkia abestuko du Marie-Helene Estekandik, Jakes Etxeberria eta Vivi musikariek.

Herriko hainbat haur ere kantuz ariko dira, eta bertsoan Maddi Ane Txoperena eta Oneka Jauregi gazteak. 1609-2009 elkarte-ko ordezkariak eta Christine Bessonart Senpereko auzapezak hitza hartuko dute. Guztia, Herriko Etxeak eskaini zintzur bustitzearekin bururatuko da. Estreinaldi hau ez da elkartearen azken ekimena izan. Bestek beste, antzerki bat estreinatze-ko dute laster.

Eskulturaren alde batean pertsonen erretzeko erabili zutoina dago, bestean herritarren oinazearen arantzak



Nortasun agiria

■ **Senpereko jauregia.** Sorginen ehizako auzien lekua, 1609an. Lapurdiko emazteak torturatzeko eta erretzeko erabili zuten. Han paratu dute Basterretxearen obra.

■ **Pierre de Lancre.** (1553-1631) gehien kondanatu eta errearazi zuen inkisidorea. Senperen egon zen.

■ **Estreina.** Gaur 10:30ean, jauregiaren ondoan.